

Honako Foru dekretu hau egin aurreko kontsulta publikoan izandako parte-hartzeari buruzko txostena: Foru Dekretua, hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura arautzen duena, Nafarroako lanbide heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emateagatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak ere.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta ezinbestean sustatuko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten arauaren eraginpean gerta litezkeen pertsonak eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak edo ez-erregulatuak.

Agindu hori betetzeko, alde aurreko kontsulta publikoa argitaratu da Foru dekretu hau egiten hasteko: Foru Dekretua, hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura arautzen duena, Nafarroako lanbide heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emateagatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak ere. Kontsulta publiko hori webgune honetan argitaratu da:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/consulta-publica-previa-elaboracion-decreto-foral-del-procedimiento>

Aldez aurreko kontsultan, herritarrek parte hartzeko aukera izan dute, iradokizunak eginez. Epe hau izan dute horretarako: 2021eko maiatzaren 13tik 2021eko ekainaren 2ra arte.

Alegazioak aurkezteko bidea posta elektronikoa izan da, eta helbide honetara bidali behar ziren:
scualiedu@navarra.es

Jendaurreko epe hori iraganik, adierazi behar da ez dela iradokizunik jaso proposaturiko arau-proiekturako.

Horrenbestez, Foru dekretu honen testua prestatzen hasiko da: Foru Dekretua, hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura arautzen duena, Nafarroako lanbide heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emategatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak ere.

Iruñean, 2021eko ekainaren 4an

Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzuko zuzendaria

 **Gobierno de Navarra**
Nafarroako Gobernua
Educación
Hezkuntza

Servicio de Cualificaciones
Profesionales, Empresa y
Empleo

Lanbide Kualifikazio,
Enpresa eta Enplegurako
Zerbitzua

Fco. Javier Martínez Cía